



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

**1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5ekoa, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa.**

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**Decreto Foral-Norma 1/2022, de 5 de abril, por el que se aprueban medidas tributarias urgentes para paliar el impacto económico derivado de la actual crisis Energética, del alza de los precios y de la invasión de Ucrania.**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA  
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



## **Araugintzako ebaluazio txostena**

**1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5koa, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa**

### **Sarrera**

2022ko lehen hiruhilekoan, Ukrainako gatazka ondorio potentzial oso negatiboak izaten ari zen munduko ekonomian eta ziurgabetasun maila oso handia zen. Ekoizpen kostuek gora egin zuten energiaren eta lehengaien prezioak igotzeagatik, eta ondorioz, enpresa ekoizle batzuen jardura gelditzeak gertatzen ari ziren. Horrek energia kontsumo intentsiboa duten sektoreei eragiten zien bereziki, automobilgintza eta galdaketa sektoreei esate baterako, baina baita logistikari, garraioari,

## **Informe de evaluación normativa**

**Decreto Foral-Norma 1/2022, de 5 de abril, por el que se aprueban medidas tributarias urgentes para paliar el impacto económico derivado de la actual crisis Energética, del alza de los precios y de la invasión de Ucrania**

### **Introducción**

En el primer trimestre de 2022, el conflicto en Ucrania estaba teniendo efectos potenciales muy negativos en la economía mundial y el nivel de incertidumbre era muy alto. El incremento de los costes de producción por la subida de los precios de la energía y las materias primas estaba provocando la paralización de algunas empresas productoras. La situación afectaba especialmente a sectores con un consumo de energía intensivo, como pueden ser los



banaketari eta lehen sektoreari ere.

Zirkunstantzia horiek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan izan zitzaizkeen ondorioek, zerga arloan premiazko neurriak hartzea eragin zuten. Horien helburua zen zergadunen likidezia gabezia eta ekonomian faktore guztietan sortzen ari zen eragin negatiboa arintzea.

Horrela, besteak beste, honako neurriak onartu ziren.

### **Zerga zorren zatikapen berezia**

Zerga kuotaren ordainketa interesik gabe zatikatzea onartu zen, 2022ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko borondatezko epean aurkeztutako hileroko eta hiruhileko autolikidazioentzat.

Kuota 6 zati berdinetan ordaintzen zen, 3 hilabeteko gabealdia aplikatu eta gero.

sectores de automoción, fundición, pero también a la logística, al transporte, a la distribución y al sector primario.

Esas circunstancias y sus posibles efectos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, motivaron la adopción de medidas de carácter urgente en el ámbito tributario. Su objetivo era paliar la falta de liquidez de las personas contribuyentes y el impacto negativo que se estaba generando en todos los factores en la economía.

Así, se aprobaron, entre otras, las siguientes medidas.

### **Fraccionamiento excepcional de deudas tributarias**

Se aprobó la posibilidad de un fraccionamiento sin intereses en el pago de la cuota tributaria correspondiente a las autoliquidaciones mensuales y trimestrales presentadas en período voluntario entre el 1 de abril y el 31 de mayo de 2022.

La cuota se fraccionaba en 6 partes iguales, tras un período de carencia previo de 3 meses.



Soil-soilik eragiten zien: 1) PFEZren zergadunei, baldin eta jarduera ekonomikoak egiten bazituzten edo kapital higiezinaren etekinak lortzen bazituzten, BEZari lotuta zeuden eta salbuetsita ez zeuden higiezinak alokatzeagatik; 2) mikroenpresen eta enpresa txikien zerga zorrei.

### **Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga**

**Jarduera ekonomikoak - zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate sinplifikatua**

Etekin garbia zehazteko arauen barruan, sarreraren eta gastuen arteko aldeari aplikatu beharreko murrizpenaren portzentajeak aldatu ziren.

Aldaketa horiek 2021eko zergaldian zuten eragina.

- Oro har, murrizpenaren portzentajea %10etik %15era igo zen.
- Urtean 30.000 eurotik beherako eragiketa bolumena zuten nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako, murrizpen

Afectaba únicamente a: 1) personas contribuyentes del IRPF que realizasen actividades económicas u obtuviesen rendimientos de capital inmobiliario por arrendamiento de inmuebles sujetos y no exentos al IVA; 2) deudas tributarias de las microempresas y pequeñas empresas.

### **Impuesto sobre la renta de las personas físicas**

**Actividades económicas - modalidad simplificada del método de estimación directa**

Dentro de las reglas de determinación del rendimiento neto se elevaron los porcentajes de minoración aplicables a la diferencia entre ingresos y gastos.

Esas modificaciones tenían efectos en el periodo impositivo de 2021.

- Con carácter general, el porcentaje de minoración subió del 10% al 15%.
- Para las actividades agrícolas y ganaderas con un volumen de operaciones inferior a 30.000 euros anuales el porcentaje subió



portzentajea %75etik %90era igo zen.

- Urtean 30.000 eurotik gorako eragiketa bolumena zuten nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako, murrizpen portzentajea %35etik %70era igo zen.
- Merkantzien errepide bidezko garraio jardueretarako, murrizpen portzentajea %45etik %70era igo zen.

#### **Jarduera ekonomikoak – ordainketa zatikatuak**

Jarduera ekonomikoak egiten zituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak Gipuzkoako Foru Ogasunean autolikidatu eta ordaintzera behartu gabe geratu ziren.

#### **Sozietateen gaineko zerga**

##### **Mikroenpresen zerga konpentsazioa.**

Mikroenpresek beren tamainak dakartzan zailtasunengatik zerga oinarrian konpentsazio

del 75% al 90%.

- Para las actividades agrícolas y ganaderas con un volumen de operaciones superior a 30.000 euros anuales el porcentaje subió del 35% al 70%.
- Para las actividades de transporte de mercancías por carretera el porcentaje subió del 45% al 70%.

#### **Actividades económicas – pagos fraccionados**

Las personas contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejercían actividades económicas quedaron no obligadas a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Gipuzkoa el pago fraccionado correspondiente al primer y segundo trimestre de 2022.

#### **Impuesto sobre sociedades**

##### **Compensación tributaria de las microempresas**

El porcentaje de minoración de la base imponible aplicable por las microempresas,



gisa aplika dezaketen gutxipen portzentajea %10etik %15era igo zen.

Aldaketa horrek 2021eko zergaldian zuen eragina.

### **Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia**

Baldintza batzuk betetzen zituzten entitateek honako espezialitate hauek aplikatu ahal zituzten:

- Oro har, erreserbara bideratu beharreko kontabilitate emaitza positiboaren %10eko muga, %50ekoa izatera pasa zen. Eta mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, portzentaje hori %15etik %75era igo zen.
- Oro har, oinarri ezargarriaren gehienezko %15eko murrizketa, %50ekoa izatera pasa zen. Eta mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, portzentaje hori %15etik %75era igo zen.
- Ez zen aplikagarria mozkinak nibelatzeko erreserba bereziaren saldoak izan behar zuen ondare garbiaren %25eko muga.

en concepto de compensación tributaria por las dificultades inherentes a su dimensión, se elevó del 10% al 15%

Esa modificación tenía efecto en el periodo impositivo de 2021.

### **Reserva especial para la nivelación de beneficios**

Las entidades que cumplían una serie de requisitos pudieron aplicarse las siguientes especialidades:

- El límite del 10% del resultado contable positivo a destinar a la reserva pasó a ser del 50%, con carácter general. Y en el caso de microempresas y pequeñas empresas, ese porcentaje subió del 15% al 75%.
- El límite máximo del 15% de reducción de la base imponible pasó a ser del 50%, con carácter general. Y en el caso de microempresas y pequeñas empresas, ese porcentaje subió del 15% al 75%.
- No era de aplicación el límite del 25% del patrimonio neto que debía tener el saldo de la reserva especial para nivelación de



Aldaketa horiek zergaldi bakar batean aplikatu ahal ziren, eta hauetako bat zen: 1) edo 2021eko zergaldian; 2) edo 2020ko ekitaldian, baldin eta aztertutako foru dekretu-arau hau indarrean jarri zen egunean, zergaldi hori aitortzeko borondatezko epea oraindik amaitu ez bazen; 3) edo 2020an hasitako zergaldian, baldin eta aztertutako foru dekretu-araua indarrean jarri zen egunean, zergaldi hori aitortzeko borondatezko epea oraindik amaitu ez bazen.

#### **Aparteko amortizazio askatasuna**

2022ko ekitaldirako amortizazio askatasuna ezarri zen, 2022an eskuratutako ibilgetu materialeko elementu berrietarako (eraikinak eta garraibide jakin batzuk alde batera utzita).

#### **Ikerketa eta garapen proiektuak edo berrikuntza teknologikokoak finantzatzeko kontratuak**

Malgutu egiten ziren ikerketa eta garapen

beneficios.

Esas modificaciones podían aplicarse en un único periodo impositivo, que era: 1) o en el periodo impositivo de 2021; 2) o en el periodo impositivo de 2020 (si a la fecha de entrada en vigor del presente decreto foral-norma analizado, aún no había concluido el período voluntario de declaración de dicho período impositivo); 3) o en el periodo impositivo iniciado en 2020, cuando, a la fecha de entrada en vigor del decreto foral-norma analizado, aún no había concluido el período voluntario de declaración de dicho período impositivo.

#### **Libertad de amortización extraordinaria.**

Se estableció para el ejercicio 2022 la libertad de amortización para los elementos del inmovilizado material nuevos (excluidos los edificios y determinados medios de transporte) adquiridos en 2022.

#### **Contratos de financiación de los proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica**

Se flexibilizaron de los requisitos de la



proiektuak edo berrikuntza teknologikokoak finantzatzeko kontratuak formalizatzeko baldintzak.

### **Beste neurri batzuk**

Aukera eman zen zorra geroratuta edo zatikatuta zuten enpresa eta profesionali, Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako laguntzen onuradun izateko, baldin eta laguntza horien helburua bazen egungo krisi energetikoak, prezioen igoerak edo Ukrainaren inbasioak eragindako inpaktu ekonomikoa arintzea. Betiere, kasu horietan bien arteko konpentsazioa ez zen aplikatzen, eta, beraz, onuradunak diru-laguntza benetan jasotzen zuen.

### **Sortutako ondorioak**

Aparteko amortizazio askatasunari buruzko neurriak 2022an eskuratutako elementuei eragiten zien. Beraz, 2022ko zerga ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan islatuko da. Ekitaldi horretako aitorpenak aurkezteko epea oraindik amaitu gabe dago. Beraz, ez dago daturik sortutako ondorioak eta

formalización de los contratos de financiación de los proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica

### **Otras medidas**

Se posibilitó que las empresas y profesionales que tenían concedidos aplazamientos o fraccionamientos de deuda pudieran beneficiarse efectivamente de las ayudas que convocó la Diputación Foral de Gipuzkoa, siempre que tuvieran por objeto paliar el impacto económico derivado de la actual crisis energética, del alza de los precios o de la invasión de Ucrania. En Además, no operaba para esos casos la compensación entre ambas, de manera que la subvención resultaba efectiva para su beneficiario.

### **Efectos producidos**

La medida relativa a la libertad de amortización extraordinaria afectaba a elementos adquiridos en 2022. Por tanto, tendrá reflejo en las declaraciones tributarias del impuesto sobre sociedades del ejercicio fiscal 2022. El plazo de presentación de las declaraciones correspondientes a ese





proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko bat-etortzea aztertu ahal izateko.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate sinplifikatuan zehazteko aparteko neurriei dagokienez, honako hauek dira zerga-bilketa eraginari buruzko aurreikuspenak:

ejercicio todavía no ha finalizado. Por tanto, no se dispone de los datos para poder analizar ni los efectos producidos ni la correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados.

En relación a las medidas extraordinarias para la determinación del rendimiento neto en la modalidad simplificada del método de estimación directa en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, las estimaciones sobre el impacto recaudatorio son los siguientes:

Kontzeptua / Concepto	Kopurua / Número	Eragina zerga-bilketan / Impacto recaudatorio (€)
Merkantzien errepide bidezko garraioa (forfait %45etik %70era) Transporte mercancías por carretera (forfait del 45% al 70%)	1.415	-3.544.558
Nekazaritza eta abeltzaintza >30.000€ (forfait %35etik %70era) Agrícola-ganadera > 30.000€ (forfait del 35% al 70%)	513	-1.014.640
Nekazaritza eta abeltzaintza <30.000€ (forfait %75etik %90era) Agrícola-ganadera <30.000€ (forfait del 75% al 90%)	2.063	-598.884
Sinplifikatu orokorra (forfait %10etik %15era) Simplificada general (forfait del 10% al 15%)	31.045	-11.907.095
<b>Guztira / Total</b>	<b>35.036</b>	<b>-17.065.176</b>

Guztira, jarduera ekonomikoak aitortzen dituzten 35.036 pertsoneri eragin die, eta 17,0 milioi euroko zerga-bilketa eragin negatiboa izan du Foru Ogasunarentzat.

En total, ha afectado a 35.036 personas declarantes de actividades económicas, y ha supuesto un efecto recaudatorio negativo para la hacienda Foral de 17,0 millones de euros.



Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak egiteko obligaziotik salbuesteari dagokionez, 6.334 pertsonari eragin dio, eta 4.917.886 euro ordaintzeari utzi diote.

Sozietateen gaineko zergan, mikroenpresek oinarri ezargarrian aplikatu dezaketen murrizketa %10etik %15era handitzeak, 7.367 entitateri eragin zien 2021eko ekitaldi fiskalean, eta Foru Ogasunarentzat 2.746.919 eurotako zerga bilketa eragin negatiboa izan zuen.

Zerga horretan eta ekitaldi fiskal berean, mozkinak nibelatzeko erreserba bereziaren mugen aldaketek, 21 erakunderi eragin zien, eta Foru Ogasunarentzat 210.194 euroko zerga-bilketa eragin negatiboa izan zuen.

## **Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura**

Arau honetan onartutako neurrien helburua zergadunei likidezia ematea izan zen eta Ukrainaren inbasioaren ondorioz ekonomiaren

Respecto a la exoneración del pago fraccionado del primer y segundo trimestre de 2022 en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se ha estimado que ha afectado a 6.334 personas, que dejaron de pagar 4.917.886 euros.

En el impuesto sobre sociedades, el aumento del 10% al 15% de la minoración de la base imponible aplicable por las microempresas afectó en el ejercicio fiscal de 2021 a 7.367 entidades, con un efecto recaudatorio negativo para la Hacienda Foral de 2.746.919 euros.

En ese mismo impuesto y ejercicio fiscal, los cambios en los límites de la reserva especial para la nivelación de beneficios afectó a 21 entidades, con un efecto recaudatorio negativo para la Hacienda Foral de 210.194 euros.

## **Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados**

El objetivo de las medidas aprobadas en esta norma era dotar de liquidez a las personas contribuyentes y mitigar en cierta medida el



faktore guztietan sortzen ari zen eragin negatiboa arintzea.

Onartutako neurriek zuzenean eragin diete gure lurraldean jarduera ekonomikoak egiten dituzten 48.758 pertsona eta erakunderi. 24,9 milioi euro utzi dituzte beraien eskuetan, eta Ukrainako inbasioaren ondorio ekonomikoek likidezia eta kaudimen handiagoz aurre egiteko erabili ahal izan dituzte.

Beraz, esan daiteke arauak proposatutako helburuak bete direla.

## Araugintza garatzeko beharrak

Aztertutako arauak erregelamenduzko garapen hauek izan ditu:

**217/2022 Foru Agindua, apirilaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen baita 169/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak,**

impacto negativo que se estaba generando en todos los factores en la economía, como consecuencia de la invasión de Ucrania.

Las medidas aprobadas han afectado de manera directa a 48.758 personas y entidades que ejercen actividades económicas en nuestro territorio. Han dejado en sus manos 24,9 millones de euros, que han podido utilizar para poder afrontar con mayor liquidez y solvencia las consecuencias económicas de la invasión de Ucrania.

Por tanto, se puede decir que se ha cumplido con los objetivos propuestos por la norma.

## Necesidades de desarrollo normativo

La norma analizada ha tenido los siguientes desarrollos reglamentarios:

**Orden Foral 217/2022, de 5 de abril, por la que se modifica la Orden Foral 169/2022, de 17 de marzo, por la que se aprueban los modelos de autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el patrimonio correspondientes al período impositivo**



### **epeak eta tokiak ezartzen dituen**

109. ereduaren 6. eranskinaren edukia egokitzen da, 1/2022 Foru Dekretu-Arauan onartutako zenbait gastu murrizteko portzentaje berrietara.

### **Laburbilduz**

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judicializaziorik egin haren aplikazioan.

### **2021, así como las formas, plazos y lugares de presentación e ingreso**

Se adecua el contenido del anexo 6 del modelo 109, a los nuevos porcentajes de minoración en concepto de gastos diversos aprobados en el Decreto Foral-Norma 1/2022.

### **En resumen**

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.